



DIÁLOGOS &
APRENDIZAJES

Alfa eta Omega. Lidergo eraidatzaile baterako gakoak

Mercè Brey

Ekainak
19

13:00

EDE Eraikina
(Manuel Allende 10-Bilbo)

MANUEL ALLENDE 10
48010 BILBAO
ede@edefundazioa.org
www.edefundazioa.org
T. 944 009 999





ALFA ETA OMEGA. LIDERGO ERALDATZAILERAKO GAKOAK

- MERCÈ BREY-

Erakundearen 50. urteurreneko jardueren esparruan, eta gizartearen etorkizuneko erronkei buruzko ezagutza- eta hausnarketa-esparruan, erantzukizun-postuak eta lidergo eraldatzailea bultzatzeko apustu sendoa dituen [Kerala](#) EDE Fundazioko emakume-taldeak elkarrizketa-espazio bat planteatu nahi du, egindako bidearen, orainaren eta balioak dituen lidergo feministan oinarritutako etorkizunaren ikuspegia lotuko dituen.

HELBURUAK:

- Erakundeen barruan lidergo feministari buruzko sentsibilizazio- eta hausnarketa-gune bat sortzea.
- Lidergo feministaren kontzeptua hurbiltzea, ikuspegi praktiko eta zehatz batetik.
- EDEn gure etorkizuna lidergo eraldatzaile batetik eraikitzea, gobernantza feministarako bide gisa.

KONTZEPTU-ESPARRUA

Berdintasun-planak txertatzeko edo erakundeetan desberdintasunak bistaratzeko lana egin arren, beharrezkotzat jotzen dugu gizartea eta ekonomia eraldatzen dituzten organizazio-kultura berriak bultzatzea, egitura-aldaketak erakundearen barruan modu iraunkorrean sortuz, besteak beste, kanporantz (praktiken, zerbitzuen eta programen, jardueren eta abarren bidez), ekitatea, gizarte-kohesioa, gizarte-berrikuntza edo ingurumenaren babesu sustatu ahal izateko.

Hori guztia bat dator bizitzaren jasagarritasunaren paradigmarekin, ekonomia feministarekin edo eko-feminismoarekin; izan ere, azken

urteotan, gai hauetan asko sakondu da: bizi garen planetarekiko erantzukizuna, bizitza erdigunean paradigma gisa, pertsonen interdependentzia gizateriaren berezko elementu gisa, eta zainketen krisia, gizarte-esparru guztietatik, baita gizarte-erakundeetatik ere, aurre egin behar zaiona.

Lidergoa kulturaren elementu bultzatzailea da, eta berdintasunaren aldeko apustua hedatzea ahalbidetzen du. Gure lidergo-eredua berrikustek eragin zuzena du pertsonengan eta haien harremanetan, eta pertsonen talentuari esker ingurune aldakorretara egokitzeko gai da. Erakundearen barne-eraldaketak egiturak eta pertsonak aldatzen ditu, baina, era berean, aldaketak sortzen ditu elkarrekin erlazionatzen gaituztenekin, eta, beraz, gizarte-mailako (erakundeak, administrazioa eta herritarrak) konexioak sortzea eta ezagutza transferitzea du helburu.

Keralan lidergo feministako ereduak praktikan jartzeko, botere-egiturak berrikusteko, gobernantza-modu berriak aztertzeko, aniztasunarekiko zaintza eta errespetua bultzatzeko eta tradizioz emakumeei esleitutako atributuak eta eskumenak txertatzeko konpromisoa dugu.

[Irakurri gehiago EDEko lidergo eraldatzaileari buruz](#)

Mercè Breyri buruz

Mercè aditua da emakumearen garapen profesionalean eta lidergoan. Enpresei aholkuak ematen dizkie beren lidergo-estiloa eraldatzeko estrategiak diseinatzen eta hedatzen.

Liderren aholkularia da, izan ere, horiek batzuetan zalantzan jartzen dute nola ari diren erronka profesionalari eta lider izateko moduari heltzen, eta hala, beren errealitatea eraldatu ahal izateko, eta, aldi berean, gizarte jasangarriagoa, bidezkoagoa eta humanizatuagoa sortzen laguntzen ditu.



Hogeita hamar urteko ibilbidea egin du banketxetan, eta hainbat kargu izan ditu; Merkataritza Ganberako presidente izan da, eta hainbat kontseilu eta batzordetako kide. Lan horiek esperientzia baliotsua eta erakundeen ikuspegi pribilegiatua eman diote.

BLUE sortu du, aholkularitza-enpresa eta think lab, lider izateko eta erronka profesionalari heltzeko modu berriak birpentsatzeko. Online eskola bat jarri du martxan, bere esperientzian eta ikerketan oinarritutako prestakuntzak emateko.

Bere lehen liburuan (Eres lo mejor que te ha pasado... Quiérete!) autolidergorako gida praktikoa proposatzen du, baloratzen, oreka osasuntsuan bizitzen eta gure potentzial guztia garatzen ikasteko.

Alfas y Omegas el poder de lo femenino en las organizaciones bigarren liburua 20 herrialdeetako zuzendariak egindako 90 elkarrizketetan oinarritutako ikerketa biltzen du, baita lau kontinentetan egindako online inkesta bat ere. Liburuak aztertzen du maskulinitasunaren eta femininitasunaren arteko orekak nola sortzen dituen pertsonen ongizatea eta erakundeen errentagarritasuna, eta lidergo-estilo bateratzailea lortzeko metodologia bat jasotzen du.

Bere azken argitalpenean, La millonésima mujer izenekoan, ibilbide orri bat zehazten du beren garapen profesionalaren alde egiteko eta bizi garen errealitatea eraldatzeko erabakia hartu duten emakumeentzat.

Hainbat komunikabiderek lankidetzan aritu ohi da eta hitzaldiak eman ohi ditu, erakundeak eta, ondorioz, gizarte osoa eraldatzeko beharrezkoa den bilakaera pertsonal zein profesionalaren ideia zabaltzeko.

Izena eman